

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: **38**
Nork aurkeztu du: **Iñaki Azurmendi Iriondo**
Aurkezpen data: **2022/02/07**

Sugerencia N°: **38**
Presentada por: **Iñaki Azurmendi Iriondo**
Fecha de presentación: **07/02/2022**

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

“Txorierriko Berrikuntza Ardatza” udalaz gaindiko eremu estrategikoari dagokionez, dagoeneko abian diren jarduera ekonomikoen ingurumen-eragina eta lurzorua okupazioa kontuan hartuta, ez da bidezkoa nekazaritza-lurzu gehiago kolonizatzea, bereziki balio estrategiko altuko lurzoruetan.

Hala eta guztiz ere, Lezamako Udalak La Cruz eta Ugarte eremuetan industria-poligonoak handitzea proposatzen du, eta balio estrategiko altuko lurzoruei eragiten die.

Lezamako ingurumen-eraginak adierazten dira:

- Autobiaren eta aireportuaren trafikoa eta zarata.
- Silicatos de Malpica enpresaren zarata.
- CO₂-ren igorpenak.
- 40 hektareako eta edukieran 4 milioi m³-ko zabortegiaren proiektua.

Nahiz eta zabortegia LPPean ez aurrez ikusi, Eremu Funtzionaleko hondakinen kudeaketarekin zuzeneko harremana du eta, hain zuzen ere, horrek izan behar du LPParen helburu bat.

Azaldutako guztia dela bide, eskatzen du:

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

En relación con el Área de Carácter Estratégico Supramunicipal “Eje de Innovación del Txorierri”, se considera que dado el impacto ambiental y la ocupación de suelo de las actividades económicas ya en marcha en este momento, no procede colonizar más suelos agrícolas, especialmente en suelos de Alto Valor Estratégico.

A pesar de lo anterior, se observa que el Ayuntamiento de Lezama propone ampliar los polígonos industriales con los ámbitos de La Cruz y de Ugarte, afectando a suelos de Alto Valor Estratégico.

Se indican impactos medioambientales existentes sobre Lezama:

- el tráfico y ruido de la autovía y del aeropuerto,
- el ruido de la empresa Silicatos de Malpica,
- las emisiones de CO₂ y
- el proyecto de vertedero de 40 has de superficie y 4 millones de m³ de capacidad.

Aunque el vertedero no se recoge en el PTP, se considera que es un tema directamente relacionado con la gestión de los residuos del Área Funcional que debe ser uno de los objetivos del PTP.

Por todo lo expuesto se solicita:





1. Lezaman industria-lurzoru gehiago ez kalifikatzeko.
2. Lezamako La Cruz eta Ugarte eremuak Balio estrategiko altuko lurzoru gisa kalifikatzeko, 2020ko Udalplanen datuen arabera kartografia zuzentzen denean.
3. Aipatutako zabortege handia debekatzeko.
4. Zamudion Agarreko erreserba kentzeko eta balio estrategiko altuko lurzoru gisa kalifikazioa mantentzeko.

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Lurzoruen sailkapena eta kalifikazioa udalaren eskumena da.
2. Dena den, LPPak indarreko udal-plangintzatik abiatuta, bere proposamenak egiten ditu, beraz, Lezamako plangintza 2020ko Udalplanen datuekin bat eguneratu beharko da, La Cruz eta Ugarteko lurzoru urbanizagarrien sailkapen akastuna zuzentzeaz gain, lurzoru urbanizaezin izan beharko bailitzateke. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera, trantsizioko landa-paisaiaren kategoria dute.

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, aipatu behar da bere plangintza ikuskatzen duen hurrengoan, Lezamako Udalak jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri gisa La Cruz eta Ugarte eremuen birsailkapena planteatzeko aukera izango duela, berriki deuseztatu zen HAPOan egin zuen bezala.

Lezamako HAPO berria eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa idazten eta izapidetzen ari den bitartean lurzoru horiekiko afektazioak modu egokiagoan aztertu ahal izango dira.

Esan behar da LPParen ikuspegitik, modu orekatuan bateratu behar direla lurzoru urbanizaezinaren babesa eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintza nahikoa izatearen helburu estrategikoa, LAGen 12. artikulua eta Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren Sorrera Publikoari buruzko LPSak xedatutakoaren arabera. Eremu funtzionalean baliabide mugatua da, hortaz, halako lurzoru-motaren beharra ikuspegi metropolitarretik aurrez ikusi behar da, Lezamako udal-irizpidetik haratago.

1. No calificar más suelo industrial en Lezama.
2. Calificar como suelos de Alto Valor Estratégico los ámbitos de La Cruz y de Ugarte de Lezama, una vez corregida la cartografía según los datos de Udalplan 2020.
3. Prohibir el gran vertedero citado.
4. Eliminar la reserva de Agarre en Zamudio y mantener su calificación como suelos de Alto Valor Estratégico.

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. La clasificación y calificación de suelo es competencia municipal.
2. Lo que sí hace el PTP es partir del planeamiento municipal vigente para elaborar sus propuestas, por lo que el planeamiento de Lezama deberá ser actualizado de acuerdo con los datos de Udalplan 2020 y corregirse la errónea clasificación de los suelos urbanizables de La Cruz y Ugarte, que pasarían a ser suelos no urbanizables y, según el PTS Agroforestal, categorizados como paisaje rural de transición.

Dicho lo anterior, hay que señalar que en la próxima revisión de su planeamiento el Ayuntamiento de Lezama tendrá la posibilidad de volver a plantear la reclasificación de los ámbitos de La Cruz y de Ugarte como suelos urbanizables para actividades económicas, como ya hizo en el PGOU recién anulado.

En el curso de la redacción y tramitación del nuevo PGOU de Lezama y de su Evaluación Ambiental Estratégica se podrán analizar más adecuadamente las afecciones a estos suelos.

Hay que significar que desde el punto de vista del PTP debe conciliarse de manera equilibrada la protección del suelo no urbanizable con el objetivo estratégico de disponer de una oferta suficiente de suelo para actividades económicas, de acuerdo con lo previsto en el artículo 12 de las DOT y en el PTS de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas. Se trata de un recurso limitado en el área funcional, de ahí que la necesidad de este tipo de suelo deba contemplarse desde una perspectiva metropolitana, más allá del criterio municipal de Lezama.





Azaldutakoa dela eta, LPPa behin-behineko onesteko dokumentuaren hurrengo fasean Lezamako lurzoruen sailkapena eguneratuko da, eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruak zenbatzean lurzoru huts eskuragarriaren murrizketa erregistratuko da.

- 3.LAGen aplikazio-arauekiko II. eranskinetik 1.b.4 atalaren arabera, hondakin solidoen garraioa, isurketa, tratamendua eta kontrola kudeatu eta kokatzeko erreferentziazko esparrua EAEko Hiri Hondakinetakarako Azpiegituren LPSa izango da.

Hondakinak hondakindegietan biltegitatuta deuseztatzea arautzen duen 49/2009 Dekretuari jarraikiz, hondakinak balorizatu edo deuseztatzeako jarduerak garatuko dituzten instalazioen kasuan eta hondakindegia sortu, handitu eta aldatzean, Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloan sail eskudunak baimena eman beharko du.

Dekretu horrek 15. artikuluan («Aldez aurreko kontsultak») ezartzen duenez, «hondakinak hondakindegian botata ezabatzeko jarduerak bultzatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, baimena eskatu aurretik, kontsulta egin ahal izango diote Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumengaietan eskumena duen sailari, proposatutako kokapena ingurumen aldetik egokia den ala ez egiaztatzeako».

Bestalde, uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuak, hondakinak zabortegetan utzi ezabatzeko jarduera arautzen duenak, zabortege mota guztiek kokapenari dagokionez bete beharreko baldintzak jasotzen ditu I. eranskinaren 1. atalean.

Atal horretan bertan adierazten denez, zabortege baten kokapena aurreko baldintzak batera ebaluatuko dituen Espainiako Geologia eta Meatzaritza Institutuaren nahitaezko txosten baten mende dago.

Atal horretako bigarren puntuak ezartzen duenez, zabortegea baimendu ahal izango da, baldin eta kokalekuaren ezaugarriek, aipatutako betekizunei dagokienez, edo hartzen diren neurri zuzentzaileek adierazten

Por lo expuesto, en la próxima fase del documento de aprobación provisional del PTP se actualizará la clasificación de los suelos de Lezama y se registrará la correspondiente disminución del suelo vacante disponible en la cuantificación de los suelos de actividades económicas.

- 3.Según el apartado 1.b.4 del Anexo II a las Normas de Aplicación de las DOT, el marco de referencia para la localización y gestión del transporte, depósito, tratamiento y control de residuos sólidos será el PTS de Infraestructuras de Residuos Urbanos de la CAPV.

De acuerdo con el Decreto 49/2009, que regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero, las instalaciones donde vayan a desarrollarse actividades de valorización o eliminación de residuos, así como la creación, ampliación y modificación de vertederos, deben someterse a autorización del Departamento competente en materia de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

El citado Decreto establece en su artículo 15 "Consultas previas" que "las personas físicas o jurídicas que promuevan actividades de eliminación de residuos mediante depósito en vertedero podrán, con anterioridad a la solicitud de autorización, efectuar una consulta previa al departamento competente en materia de medio ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco en aras a constatar la idoneidad de la ubicación propuesta a los solos efectos ambientales.

Por otra parte, el Real Decreto 646/2020 de 7 de julio, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero, recoge en su anexo I, parte 1, los requisitos generales para todas las clases de vertederos referidos a la ubicación.

En el mismo apartado se señala que "la ubicación de un vertedero queda sujeto a un informe preceptivo del Instituto Geológico y Minero de España que evalúe conjuntamente los requisitos anteriores".

El punto Segundo del citado apartado establece que "2. El vertedero solo podrá ser autorizado si las características del emplazamiento con respecto a los requisitos mencionados, o las medidas correctoras que





badute ez duela ingurumenerako arrisku larrik eragingo.

Beraz, aipatzen diren kontsultak baimena emateko prozeduraren aurretik izapidetzen dira eta haien emaitza edozein dela ere, ez dago zertan gerora beste eskaera bat egin.

Ildo horretatik, garrantzitsua da gogoratzea alegazio-egileak aipatzen duena bezalako zabortege bat ezartzeak berekin dakarrela ingurumen-ebaluazioko prozesu bat osatzea eta beharrezkoa den ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aldeko adierazpena eskuratzea, baita ingurumen-baimen integratua ere, 21/2013 Legearen eta 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera.

Administrazio honetan ez da inon ageri, besteak beste, informazio publikoko kontsulta bat egitea eta hiritarren zein administrazio eskudunen iradokizunak jasotzea ekarriko lukeen era horretako izapiderik hasi denik.

4.LPParen proposamenen artean Agarreko (Zamudio) jarduera ekonomikoen erreserba sartu da Zamudioko Parke Teknologikoak (lurzoruaren jabeak) eskatu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzak aldeko txostena egin duelako eta balio estrategiko altuko lurzoruekiko afektazioari dagokionez, BFAko Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiak ere aldeko txostena eman duelako.

Lursail horiek sailkatzeari dagokionez izan daitezkeen eragozpenak Zamudioko HAPOa eta dagokion Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa ikuskatzearen esparruan alega daitezke. Izapide horretan behar bezala baloratu beharko dira aukerak eta afektazioak.

se tomen, indican que aquel no planteará ningún riesgo grave para el medio ambiente.”

Por lo tanto, las tramitaciones de consultas que se mencionan son previas al proceso de autorización e independientemente del resultado de las mismas no necesariamente dan lugar a una posterior solicitud.

En ese sentido, es importante recordar que la implantación de un vertedero como el que menciona el alegante implica completar un proceso de evaluación ambiental y la obtención de la pertinente declaración de impacto ambiental favorable, así como una autorización ambiental integrada de acuerdo con la Ley 21/2013 y el Real Decreto Legislativo 1/2016.

No consta a esta administración que se haya iniciado ninguna de esas tramitaciones que, entre otros procesos implicaría una consulta de información pública y recepción de sugerencias tanto de la ciudadanía como de las distintas administraciones competentes.”

4.La inclusión de la reserva de actividades económicas de Agarre (Zamudio) entre las propuestas del PTP se produce por indicación del informe favorable de la Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana del Gobierno Vasco a la petición del Parque Tecnológico de Zamudio, propietario de parte de los suelos, y cuenta con informe favorable de la Dirección General de Agricultura de la DFB en relación con la afección a los suelos de alto valor estratégico.

Las posibles objeciones en relación con la clasificación de esos terrenos podrían alegarse en el marco de la revisión del PGOU de Zamudio y su correspondiente Evaluación Ambiental Estratégica, donde deberán valorarse adecuadamente las alternativas y las afecciones previstas.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

